



EBAZPENA, 2023ko irailaren 14koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita zuzendari beraren 2023ko uztailaren 21eko Ebazpena, non zehaztu baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan parte hartuko duten Epaimahaien eta Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), hautaketa-prozesuetarako zenbait deialdi egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez, hautaketa-prozeduretan parte hartuko duten Epaimahaien eta Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren zehaztu ziren.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Nekazaritzako produkzio-prozesuak eta Nekazaritza-produkzioko eragiketak eta ekipoak espezialitateen epaimahaia kokatu behar den lurralde historikoa aldatu behar da.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko uztailaren 21eko Ebazpena, zeinaren bidez zehaztu baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan parte hartuko duten Epaimahaien eta Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren). Aldaketak honela izango dira:

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Nekazaritzako produkzio-prozesuak eta Nekazaritza-produkzioko eragiketak eta ekipoak espezialitateen epaimahaiaren egoitzaren lurralde historikoa honako hau izango da:

Lurraldea: Araba

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 14a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA GUERRERO OCEJO